

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

24/2019 Foru Agindua, otsailaren 4koa, onesten duena abenduaren 18ko 361/2018 Foru Aginduak, Burgeluko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onetsi zuenak, ezarritako baldintzak betetzea

AURREKARIAK

Lehenengoa. Abenduaren 18ko 361/2018 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen Burgeluko udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea zenbait baldintzarekin. Aldaketa puntuala Ixonako herrigunean UE-8 egikaritze unitatea berriz ere mugatzeari buruzkoa da.

Bigarrena. 361/2018 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2019ko urtarrilaren 25ean, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

OINARRIAK

Behin dokumentazio aurkeztua azterturik, egiaztatu zen zuzendu zirela lehengo Foru Agindu horretan adierazitako alderdiak.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenak baliatuta,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abenduaren 18ko 361/2018 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen Burgeluko udaleko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedientea. Aldaketa puntuala Ixonako herrigunean UE-8 egikaritze unitatea berriz ere mugatzeari buruzkoa da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 4a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO